



## «Derbietan garai bateko giroa izatea nahi nuke»

**Bittor Alkiza denon ahotan izan da, Realera itzultzeko aukera aipatu zen eta. Herreratarrak ez du igandeko derbia jokatu, lesionatuta baitago, baina bere etorkizunaz eta futbolaz hitz egiteko aprobeztatu dugu aukera.**

Aitziber Iartza

**IRUTXULO**n lehen elkarrizketa 1994ean egin genizun, Realean zeundela. Orduan pentsa al zenezakeen Athleticen hainbeste urtez jokatu zenuela?

Ez, egia esan, ez. Baina gauza bera gertatu zen Athleticekin akordioa sinatu baino egun edo ordu batzuk lehenago galdetuta ere. Azken unera arte ez nuen jakin Athleticera joango nintzen ala ez.

Bigarren elkarrizketan, berriz, zu Athleticeko ordezkari gisa aritu zinen eta Imaz, Realekoa. Nola aldatzen diren gauzak!

Bai, egia da. Beraz, nire iritziz, ez da gehiegi hitz egin behar, egun batean gauza bat baitago eta hurrengoan, beste bat. Ez da komeni gehiegi hitz egitea, gauzak egun batetik bestera asko aldatzen dira eta.

Aurten guztion ahotan izan zara, Realera etortzeko aukera zela eta. Nola bizi izan duzu hau guztia?

Lasaitasunez. Banekien gaiaz hitz egi-

ten ari zirela, baina dena den, beti pentsatu dut gauzak erabat lotuta izan arte ez direla haizeratu behar. Akordioa sinatu arte isilik egotea komeni da.

Datorren urtea kontratua amaituko zaizu. Gustatuko al litzaizuke Realera etortzea?


Nik epe laburrera begiratu nahiago dut. Une honetan lesionatuta nago, eta nire helburua sendatzea eta jokatzeko hastea da. Datorren urtean zer gertatuko den ikusiko dugu. Ez dakit Athleticen jarraituko dudan, Realera joango naizen, beste talderen batera edo etxera. Izan ere, adinean ere aurrera noa.

Zure burua jarraitzeko moduan ikusten al duzu?

Bai, nire burua ongi ikusten dut, baina nik beti esan dut taldeak behar nauen bitartean jokatu dudala, ez bestela. Alegia, nire taldearentzat baliagarria izatea da jarraitzeko arrazoia. Hala, etxekoei beti esan izan diet argi eta garbi esateko nola ikusten nauten.




Arriberrí, 7 ALTZA (Donostia). Kasaren Kultur Etxearen Aldean (Aldearen Aldean) dagoen andoan  
eta autobusez bazatuz, hobe! Autobus lineal 13. No. 24 eta 27



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA

# AMARA'Z TATTOO

## AMARA'Z TATTOO TATUAJEA & PIERCING-A

Easo kalea 69 (Galeria)  Tel.: 617512464



## «Bertako jokalariei eman behar zaie aukera»

Horretarako aita al duzu aholkulari?

Aita bai, baina, batez ere, anaia eta lagunak. Haiek dira nire aholkulari onenak.

Askotan aipatu izan da atzerritarrek gehiago baloratzen direla, eta halako hordagoak ere izan dira. Dena dela, Idiakezzen kasuan, esaterako, ikusi da ez dela erraza gainontzeko taldeetan lekua lortzea.

Bai, hala da. Egun izugarritzko lehia handia dago, atzerritar mordo dago, eta talde bakoitzak 25 jokalarientzat besterik ez du lekua. Beraz, ez da erraza. Horri azken aldira diru kontuekin gertatuko gehitu behar zaio. Telebistaren kontuarekin eta, diru murrizketak izan dira, eta gero eta zailagoa da leku bat izatea.

Diru kontuetan, futbol mundua azken aldira ero samar dabilela dirudi. Zein iritzia duzu honetaz?

Egia esan, ero samar dabil, bai, eta nire ustez, honek muga izan behar du nonbait. Jendeak konturatu behar du bertakoek lan ikaragarria egiten dutela gora irteteko eta aukera bat eman behar zaiela.

Athleticek, ordea, ez du atzerritarrik fitxatzen. Egoera ezberdina al da?

Ez pentsa oso ezberdina denik, Athleti-

cek ere fitxaketak egin behar baititu. Hor dago nire kasua, Andonirena eta abar. Kontua da ez dela etengabe beste lekue- tan bila aritu behar; bertakoei aukera eman behar zaie, Nire ustez, kanpoko fitxaketak egiterakoan, benetan fitxaketa onak egin behar dira. Alegia, fitxaketa horiek futbolari bikainenak izan behar dute.

Nola ikusten dituzu athleticzaleen eta realzaleen arteko tirabirak?

Nire ustez, egungo derbiak ez dira lehengoak bezalakoak. Garai batean lehiakortasuna egon bazegoen, ikaragarria gainera, baina giro onekoa. Egun, ordea, derbia beste zerbait da, eta giroa ez da garai batekoa bezalako. Nik eta beste askok garai bateko giroa izatea nahi genuke, baina zoritxarrez, egun ez dago halakorik.

Duela bi denboraldi realzaleek Osasunak Anoetan sartutako golak ospatu zituzten, talde nafarrak, Lehen Mailari eusteko, irabazi behar zuen eta. Athleticzaleen eta realzaleen artean gauza bera gertatuko al litzateke?

Aipatutako giro horren ondorioz, ez dut uste halakorik gerta litekeenik. Izan ere, gaur egun, agian, beste taldea Bigarren Mailan ikusi nahi dutenak gehiago dira berriro ere derbia ikusi nahi dutenak baino.

Non hitz egiten da gehiago euskaraz, Realaren aldagelan edo Athleticenean?

Realaren aldagelan lagunak ditudan arren, ez dakit orain zein hiz-

kuntzatan hitz egiten duten. Athleticen aldagelari dagokionez, azken boladan gazte euskaldun asko sartu dira, eta euskaraz entzuten da. Kontua da, ordea, jokari askok ez dakitela euskaraz, eta azkenean, errespetuarengatik edo, gazteleraz hitz egin ohi dugula.



**LARRIMENDU**  
ZERBITZU-ESTAZIOA

Nafarroa hiribidea 5  
Tel.: (943) 279211 eta (943) 286219 • Faxa: (943) 279890

**LANFISA**  
Enpresa zela autonomoen aholkularitza

**ASPROMESA**

- Lan mundua
- Zergak
- Kontabilitatea
- Juridikoa

Fermin Calbeton 45 solairuarterkoa. 1 bulegoa  
Tel: 943 423464/943 422823  
20003 Donostia

**LINDS** Produktu naturalak (Pintura, argizari, olioak, etab...)

**GTOS**

San Frantzisko, 19 beheko eta faxa: 943 27 85 05